

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatikariaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, 2016ko lan-eskaintza publikotik eratorria

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak 33.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, bitarteko funtzionarioak aurkezteko, publikotasun, berdintasun, merezimendu, eta gaitasun printzipioak hartu behar dira kontuan, eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatu behar da.

Aldi baterako zerbitzuak emateko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudiaren aldaketa onartzen duen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.4 eta 4.6 artikuluek, uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduak emandako idazketan (ALHAO, 88. zenbakia, 2019ko uztailaren 31koa), ezartzen dute behin 7 egun balioduneko epea igarota pertsonak dagokion lan-poltsan kokatzeko behin-behineko ordenari buruzko erreklamazioak aurkezteko, ebatziko direla aurkeztutako erreklamazioak eta dagokion poltsaren hasierako osaera onartuko dela, indarrean noiz jarriko diren zehaztuta.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen kudeaketako zuzendaritzaren 2020ko otsailaren 5eko ebazpenaren bidez, informatikariaren aldi baterako lan-poltsan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin betiko zerrenda onartu da, eta era berean, pertsona horiek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatikariaren aldi baterako lan-poltsa honetan kokatzeko behin-behineko ordena ere zehazten da.

Onorioz, eta aurretik ezarritakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian argitaratuko da (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn ere bai, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatikariaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, aurkeztutako erreklamazioak ere ebatziz, hala badagokio.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikuluekin bat etorritz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoa eratzen duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren 7. artikuluekin bat etorritz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak

EBAZTEN DU

Lehenengoa. Ezestea 72741631 Z. NAN zenbakia duen hautagaiak aurkeztutako erreklamazioa, Unibertsitate Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren 2015eko maiatzaren 4ko Ebazpenaren arabera, eta azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Informatikako Ingeniaritzako unibertsitate-titulu ofiziala bat dator Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. mailarekin, hau da, master-maila batekin. Ondorioz, dagokion baliokidetasunerako ezinbestekoa da gradua eta masterra lortzea.

Bigarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atarian argitaratzea (www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatikariaren aldi baterako lan-poltsaren hasierako osaera, l. eranskin gisa erantsi dena.

Hirugarrena. Halaber, maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren hamalaugarren oinarrian xedatutakoaren arabera, ekainaren 1eko 111/2017 Foru Aginduak emandako idazketan (2017ko ekainaren 9ko ALHAO, 65. zenbakia), egun indarrean dagoen Informatikako goi-mailako teknikarien Zerrenda subsidiarioa automatikoki indargabetuko da.

Laugarrena. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko informatikariaren aldi baterako lan-poltsa hau indarrean jarriko da ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta biharamunean.

Bosgarrena. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko auzi errekurtsuotarako Epaitegiaren aurrean, edo bestela, hilabeteko epean, berraztertze errekurtsua, ebazpen hori eman duen erakunde beraren aurrean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin loturik- aurreikusitakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 4a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS

I. ERANSKINA

INFORMATIKARIEN ALDI BATERAKO LAN POLTSAREN HASIERAKO OSAERA

NAN	H.E.	PARTE-HARTZEKO LEHENTASUNA			A	B	C	ESKU	LANALDI MOTA	HAUTATZE PROZESUA			PUNTUAKETA		ESK.	JARDUNALDIA	GUZTIRA
		A	B	C						ESK.	JARDUNALDIA	GUZTIRA					
44679613 C	3		X	X	X	X	X	A			40,72974	3	1,5		45,2297		
30676419 P	3	X	X					D		44,85746	0	0	0		44,8575		
44673629 Q	3	X	X					D		44,22015	0	0	0		44,2202		
45818272 H	3	X	X					D		44,02313	0	0	0		44,0231		
44677965 M	3	X	X					D		43,75401	0	0	0		43,7540		
16070917 N	3	X	X					D		42,13512	0	0	0		42,1351		
18597834 B	3	X	X					D		41,08026	0	0	0		41,0803		
72736005 T	1	X	X					D		36,47031	0	0	0		36,4703		
72732132 Z	3	X	X					D		29,49555	0	0	0		29,4956		
72750266 R	1	X	X					A		25,46108	0	1,5			26,9611		
72721689 J	3	X	X					D		26,7697	0	0	0		26,7697		
44677536 J	0	X	X	X	X			A		22,07749	3	1,5			26,5775		
44679614 K	0	X	X					D		25,87469	0	0	0		25,8747		
44671267 T	0	X	X					A		20,62395	0	1,5			22,124		
44680516 A	3	X	X	X	X			A		14,88314	3	1,5			19,3831		
18602628 K	2	X	X					D		19,04237	0	0	0		19,0424		
30635595 D	0	X	X					D		14,44638	0	0	0		14,4464		

H.E.:

- 1 - 1. HE edo baliokidea
- 2 - 2. HE edo baliokidea
- 3 - 3. HE edo baliokidea
- 4 - 4. HE edo baliokideae
- 0 - Ez du egiaztatzen hizkuntza eskakizunik deialdi honetan

PARTE-HARTZEKO LEHENTASUNA:

- A. eskualdea: Lautada
- B. eskualdea: Aiarra
- C. eskualdea: Errioxa
- A. Lanaldi mota: Edozein lanaldi mota
- B. Lanaldi mota: Lanaldi osoaren ehuneko 75ekoa baino lanaldi laburragoak
- C. Lanaldi mota: Lanaldi osoaren ehuneko 50koa edo hori baino lanaldi laburragoak
- D. Lanaldi mota: Lanaldi osoa (ehuneko 100) baino ez